

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Dolores Kalonje Lizarazu

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Antiguan jaio zen Dolox, baina Igeldon bizi da lau urte zituenetik. Mendizorrotz taberna-jatetxea jarri zuten gurasoek han. Biak ziren igeldotarrak: aita Juandegi Txiki baserrikoa, ogibidez igeltseroa, eta ama Habana baserrikoa. Lau senidetan bigarrena, Dolox Igeldoko eskolan ibili zen hamalau urte bete arte, eta handik aurrera tabernan. Ez jai egun eta ez opor, beti lanean. Ezkondu, eta seme-alabak izan zituzten. Negozioarekin jarraitzen dute.

Zintak

DON-115

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-05-04
- **Iraupena:** 99 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Mendizorrotz taberna nolakoa zen

- **Erref:** DON-115/002
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Antiguan jaioa, lau urterekin joan zen Igeldora bizitzera. Mendizorrotz jatetxea lehen ere taberna omen zen. Baserria noizkoa den ez daki; aitak erosi zuen. Ukuilua. Taberna nolakoa zen. Balenziagaren etxean taberna zegoen lehen; hangoa fusilatu egin zuten, Heredero. Igeldoko tabernak. Miaketak, gerra garaian.

2. Aita kartzelan, Ondarretan

- **Erref:** DON-115/004
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lau senide ziren. Aita kartzelara eraman zuten gerra garaian, Ondarretara. Bazkaria eramaten zioten. Bi ahizpak joaten ziren, oinez. Igeltsero-lanak egiten zituen bertan. Igeldoko Juandegi Txiki baserrikoa zen; eta ama ere Igeldokoa zen, Habana baserrikoa. Gerora, tabernaz aparte, El Leon garagardo-lantegian ere ibili zen aita.

3. Umetatik tabernan lanean; Igeldoko eskola

- **Erref:** DON-115/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:09:23. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Tabernan ama egoten zen, eta beraiek ere bai koskortzean. Emakumerik ez zen sartzen. Plazako eskolara joaten ziren, eta larunbatetan jai egiten zuten. Neskak eta mutilak aparte. Maistrak erdaldunak izaten ziren, eta erdaraz ikasi behar.

4. Igeldoko eskola; ikasketak, zigorrak

- **Erref:** DON-115/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:14:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Zer ikasi zuten. Pizarra eta klariona. Adin denetakoak batera. 14 urte arte. Gero, lanean tabernan. Zigorrak. Euskaraz egin ezina.</p>

5. Umetako jolasak: pilota, txingoa; baratzean aitarekin

- **Erref:** DON-115/007
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:18:13

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: neska-mutilak pilotan, frontoian. Txingoan. Sokasalto. Tabak; lau alde zituzten. Gordeka. Ez ziren kilker bila ibiltzen. Aitak zelai bat erosi zuen, eta baratzea jarri zuen. Aitak hara eramaten zuen, lanera. Behi bat ere erosi zuen. Sagardoa egiten zuten etxean. Taberna nolakoa zen.</p>

6. Ahizpa tabernan, bera baratzean

- **Erref:** DON-115/009
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez zuten bihurrikeriarik egiten. Sagarra nahikoa zuten etxean. Sagardoa. Ahizpa tabernan egoten zen eta bera baratzeke lanetan. Behiak. Haizeak etxe bat bota zuen, eta aitak erosi egin zuen. Pelukeria jarri zuen han gizon batek.

7. Tabernako edariak; ama eta amona

- **Erref:** DON-115/011
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Taberna nolakoa zen. Ardoa eta sagardoa edateko ohitura zegoen, baita garagardoa ere. Sifioia. Kafea. Anisa eta koñaka. Puruak. Ama egoten zen tabernan, eta amona ere bai. Amonari hanka moztu zion medikuak, jangelan bertan. Hanka kanposantura eraman zuen aitak. Medikuak. Albea.

8. Esnea saltzera Antiguara

- **Erref:** DON-115/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:25:16. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Autobusean joaten ziren baserritarrak Donostiara. Ahizpa esnea saltzera joaten zen Antiguara. Neurria.

Transkripzioa

- Geo autobusa izaten zan, iya egunero autobusa izaten zan e? Baserritarrak esniak eta danak behera eramaten zituen. Gure aita beak'e geo behi bat ekarri zun ta geo beste bat eta beste bat eta ya bastante jarri zitun. Ta geo esnia partizera nere ahizpa, bestia zaharrena, Antigua juten zan marmitakin esnia saltzera.
- Autobusian?
- Autobusian.
- Autobusian?
- Bai.
- Eta Antiguon etxez etxe, ala?
- Antiguon, etxez etxe, bai. Ta zabaltzen bazitzaiyon han bertan igual entregan batian ematen ziyon neurriya, zea, haikin ematen zittuen ta...
- Nola? Neurriya txantxilla?
- Txantxilla o zea bat izaten zan, ez dakit ze izaten zien. Holaxe, pixkanaka-pixkanaka.

9. Tabernako giroa: zer ematen zuten

- **Erref:** DON-115/013
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Tabernan jatekoa ematen zuten batzuetan; arrautzak eta xerra beti izaten zuten. Kazuelatxoak ere bai, asteburuetan. Karta jokoa. Alpargatak ere saltzen zituzten. Alpargata zaharrekin joaten ziren Antiguara, eta han berriak jantzi. Bidea nahiko ona zen; bidezidorra hartzen zuten lehenago iristeko, eta han lokatza egoten zen.

10. Tabernako eta etxeko lanak

- **Erref:** DON-115/014
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Umetan tabernan egiten zituen lanak. Amari laguntzen. Ez ditu prezioak gogoratzen. Etxeko lanak. Lehengo koltxoiak jo egin behar ziren, artilea harrotzeko. Lurra nola garbitzen zuten.

11. Plazako labaderoa; gobara

- **Erref:** DON-115/016
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa garbitzera plazako labaderrora joaten ziren. Beste aska bat ere bazegoen gorago. Lagarto xaboia. Izeba bat joaten zen platerak garbitzera. Gobara egileak.

12. Komunak; hileta elizkizunak

- **Erref:** DON-115/018
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Komuna nolakoa zen, zuloa lurrean. Papera erabiltzen zuten. Dutxarrik ez. Jangela goian zuten, eta hileta elizkizunetan bazkariak egiten zituzten. Komuna eta dutxa jarri zituzten goian. Taberna jatetxe noiz bihurtu zen ez du gogoratzen.</p>

13. Norbait hiltzen zenean I

- **Erref:** DON-115/019
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Hildakoa bizkarrez eramaten zuten. Mantu beltzak eramaten zituzten hiru emakumek hilera elizkizunerako. Aulkiak elizan, izenarekin. Familia bakoitzak bere tokia zuen kandela jartzeko.</p>

Transkripzioa

-Eta hildakua etxian eoten zan ezta, lehen, beti? Bueno, orain dela oso

gutxira arte.

-Bai, bai, etxian, hoixe.

-Etxian, eta...

-Eta etxetikan, ahal zan bezela, bizkarrian askok, geroa ya hasi zian, kotxiakin ta hasi zian baiño, aurreneko, bizkarrian.

-Bizkarrian?

-Bai.

-Eta, atzetik, familiakuak eta, emakumeek kapa...

-Hiru izaten zien, hiru kapakin: bat haundiya, erdin, bere zeak haundiya, o emazia zala o, ez dakit ba nik zer.

-Alaba eo...

-Andria, o hoitakon bat. Ta harek, haundiya eamaten zun, ta geo beste bi, aldamenian txikik, hola, mantak.

-Mantak?

-Mantak, zea bezela, beltzak, e. Beltzak.

-Beltzak. Eta burua're tapatuta ala?

-Bai kaputxa, kaputxa bezela, tapatu ez, tapatu ez, e!

-Tapatu ez? Kaputxa.

-Tapatu ez, baiño, bai, kaputxa. Izaten zuen, eta beltza, zintakin. Eta hua jantzi ber izaten zuen entierrotan.

-Ta kapa hoiek ze egoten ziran, elizan gordeta ala?

-Bai, baten batek eukitzen zitun.

-Txandatu iten ziran, beti berdiñak.

-Bai, bai, hoi da.

-Eta gizonak...

-Gizonak ezer ez.

-Beltzez. Hori emakumiena zan?

-Emakumiena zan.

-Manta edo, kapa hori.

-Bai hiru emakume, [...] hil zanen, hil danen, zeana, ezta? Eo alaba, emazia eo, ez dakit ba nik.

-Ta gero elizan, etxe bakoitzak bazeukan bere tokiya?

-Ez, hori ez.

-Bere aulkiya eo?

-Sillak, sillak bai, batzuk, gutxi e. Sillak danak izaten, dana sillaz bete zan, eta nahi zunak zeatu, ba bere izena jartzen ziyoen, han koxkan. Beste batzuk berriz batez ta, ahal baldin baue tokiya harrapatu, harrapatzen zuen ta.

-Eta norbait hiltzen zanian, kandelarik edo jartzen zan?

-Bai, bai.

-Hori toki jakin baten ala?

-Toki jakin batian.

-Denek toki berian, ala familiya bakoitzak beria zekan...?

-Ez, ez. Bakoitzak beria. Bai, uste det baietz. Bai, bea "según" ohitura izaten da, toki, gutxi gorabehera, ezta? Ez det esaten "exacto", baiñon izaten zuen beren zea.

14. Norbait hiltzen zenean II

- **Erref:** DON-115/021
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Kandela zenbat denboran jarri behar zen ez du gogoratzen, hiru igandetan izaten zela uste du. Familiako batek pizten zuen argia. Gorpua elizara bizkarrez eta handik kanposantura. Sepulturarik ez zegoen garai batean. Arrosarioa, ur bedeinkatua. Elizkizunaren ondorengo bazkaria.</p>

15. Jaiotza eta emaginak; jaioberrien janzkera eta sehaska

- **Erref:** DON-115/022
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Umeak etxean jaiotzen ziren. Emaginak. Mediku bat joan zen auzora bizitzera, eta alaba emagin lanetan ibiltzen zen. Ana Mari. Berak emaginarekin eduki zituen umeak, mediku gabe. Emaginaren lana. Faja jartzen zitzaion umeari. Sehaska.

16. Aukera urriagoa menuan

- **Erref:** DON-115/027
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 01:00:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Jatetxea jarri zutenean, hasieran plater gutxi ematen zituzten. Menua. Aukera gutxiago orain baino. Postrea eta kafea aparte ordaintzen zituzten. Langileak. Harrobiak galtzen joan ziren. Igeldon gehienak baserritik bizi ziren.

17. Arropa eta oinetakoak

- **Erref:** DON-115/030
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Emakumeek zapia jartzen zuten buruan, baserriko lanak egiteko. Aitak txapela zeraman. Brusa beltza adinekoek. Beraiek ez zuten abarkarik erabiltzen.</p>

Transkripzioa

-Eta emakumiek zapirik eta jartzen zuten, buru gaiñean, buruan?
-Paiñeluak eta bai.
-Paiñeluak bai?
-Baserritarrak, e. Zelaia atea ber baldin badue lanea eo hola, bai. Paiñelua jarrita asko, bai .Oin ya ez dao, ez lanik ez dao zelaitan ta're.
-Ez, gero ta gutxio.
-Gero ta gutxiyo, dana etxiek eta etxiek eta ez dao besteik.
-Eta lehengo gizonak, zure aita ta nola jazten ziran, txapela eramango zuen?
-Txapelakin.
-Txapela beti, ezta?
-Beti.
-Eta, brusarik ala...?
-Ez, brusaik eta ez.
-Ez, baiña bazeuden batzuk brusa ta jazten zutenak, ala ez?
-Basarritarrak igual e, bai. Brusa beltzak.
-Brusa beltzak?
-Bai, hola behin pixkat edade ezkeoz, lehen asko, oain inork ez.
-Eta abarkak eta?
-Abarkak eta bai, basarritarrak bai. Bai, basarritarrak abarkak.
-Zuek ez?
-Ez.
-Zuek alpargatak eta zapatak?
-Alpargatak. Zapatak gaiñea Ama Berjin eguneako erosten zigun ta hantxe, bi urte o hiru o iten bazian. Kontu in eziñik, pare batekin zea. Jesus.

18. Igeldoko festetan tabernan lanean; kongregazioak

- **Erref:** DON-115/033
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Egun seinalatuetan elizara joaten ziren, soineko bereziarekin. Igeldoko festetan lana egin behar zuten tabernan. Bi ahizpek txandaka egiten zuten ihes, dantza egitera. Kongregazioko zinta. Konfesioak.</p>

19. Dotrina, eskola eta lanera

- **Erref:** DON-115/035
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:08:35. **Bukatu:** 01:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Igeldoko apaizak; Don Fabian Loidi. Ez ziren gogorak. Elizan ikasi zuen dotrina, euskaraz. Eskolan erdaraz. Gero lanera, batere opor egunik gabe, tabernan. Egoera nola joan zen aldatzen, pixkanaka. Taberna beti irekita. Guarda.

20. Igeldoko festak; bertsolariak; kantu-eskea

- **Erref:** DON-115/038
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:17:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Igeldoko festak. Bertsolariak tabernara joaten ziren bazkaltzera. Basarri bertsolaria. San Juan sua; gainetik salto egiten zuten mutil gazteek. Eskean ibiltzen dira bi kuadrilla. Santixabel Egunean, oilasko biltzaileak; begiak estalita oiloei burua mozteko ohitura.</p>

21. Apaizarekin zuten tratua

- **Erref:** DON-115/041
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:18:54. **Bukatu:** 01:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerria hiltzean odolkiak apaizari ere ematen zitzaizkion. Apaizarekin zuten tratua oso gertukoa zen. Etxeko ospakizunetara gonbidatzen zuten. Autoa bedeinkatzen zuen apaizak.

Transkripzioa

- Ohitura're txerriya akatzen zanian, odolki eta indakuan, apaizai ematen zen. Oain ya ez det uste e?
- Eta zuek egiten zenuten hori hemen?
- Ez, guk ez.
- Zuek ez zenuten txerririk, ezta?
- Ez.
- Txerri-munik edo...
- Txerri-munik, bai.
- Hori apaizari're bai orduan?
- Bai, aurrenengo gaiñez. Apaizai ematen zayo... Beno, oain-oain ya ez. Apaizakin zea haundiya gendun, asko etortzen zan edozer gauzan billa, ta familiarte bezela, familikua bezela jartzen giñen.
- Eta apaiza gonbidatzen zan bazkaltzera ta?

- Bai.
- Ba ez dakit, etxian ezkontzan bat edo familiko ospakizunetara?
- Bai, bai, bai, bai, bai, guk'e izandu degunetako komuniyuak, nere seme-alabak eta komuniyuan indakuan, aurreneko apaizai ta gonbidatutzen zaiye, bazkaitako etortzeko. Beti.
- Eta hemen indakon obrak eta, gero apaiza etortzen zan bedeinkapena ematera.
- Ez, ez du hua, ez.
- Ez, negoziyo berriyai suertia emateko eta halako...
- Bai, bai, izaten zan e? Izaten zan. Ta aurren-aurreneko zea hartan ez dakit. [...] bai. Ez naiz goatzen. Ingo zun zeozer zeatikan zea haundiya zun, fede haundiya apaizakin ta, eukiko zun segurasko.
- Eta batzuk automobilla eta?
- Haik'e bai. Automobilla erosten baldin bazan bedeinkatu.

22. Su bedeinkatua partitzen

- **Erref:** DON-115/043
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:21:48. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Sua bedeinkatzen zuten elizan. Kandelak bedeinkatzea. Su berria partitzen, etxez etxe.

23. Umetan, eskapularioak lepotik zintzilik

- **Erref:** DON-115/045
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:24:43. **Bukatu:** 01:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Kutunak. Eskapularioak jartzen zituzten lepotik zintzilik umetan, santuen estanpekin. Jaunartzea egindakoan ematen zieten. Opariak, erretratua; argazkilaria joaten zen Igeldora.

24. Gerra ostean goserik ez

- **Erref:** DON-115/047
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:27:52. **Bukatu:** 01:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Gerra ostean goserik ez zuten pasatu. Estraperloa. Miaketak. Aitak zulo batean gordetzen zituen jatekoak. Usurbilera joaten ziren erro tara, artoa eramatera, astoarekin. Ogia.

25. 14 urterekin emakume bihurtuta

- **Erref:** DON-115/050
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:33:35. **Bukatu:** 01:35:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Sacamantecas. 14 urtetik aurrera emakumeak ziren. Anaiak ikastetxera eta neskak lanera. Puntua egiten ikasi zuen eskolan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com